

## **Zuzendaritza Proiektua 2023-27**

**EASD IDarte AGDE**

Estibaliz Iregi Etxebarria

2023ko otsailak 10

<b>1. MARKO KONTZEPTUALA: SARRERA</b>	<b>2</b>
<b>2. ZUZENDARITZA TALDEA: KOLABORATZAILE TALDEA</b>	<b>4</b>
<b>3. ERAGILEAK: IDarte UNIBERTSOA</b>	<b>5</b>
<b>4. IDarte-ren AZTERKETA DIAGNOSTIKOA</b>	<b>6</b>
<b>5. HELBURUAK</b>	<b>9</b>
<b>6. PROIEKTUAREN KOMUNIKAZIOA</b>	<b>25</b>
<b>7. BIBLIOGRAFIA</b>	<b>26</b>

## 1. MARKO KONTZEPTUALA: SARRERA

*“Zuzendaritza proiektua ikastetxetako dokumentu estrategiko eta loteslea da, eta Ikastetxeetako Hezkuntza Proiektutik abiatuta zuzendaritzaren iparrorratza izango da”<sup>1</sup>. Horrela dio Hezkuntza Saileko gidak, eta IDarte Arte eta Goimailako Diseinu Eskolarako proiektu proposamen honi, egoera erabat aldakor baten abiatzea tokatu zaiou.*

Arautegiaren aldetik, LOM-LOE-ak, beste aspektu batzuen artean, derrigorrezko hezkuntzarako curriculum aldaketa sakonak ekarri ditu, batez ere, kontzeptualki, ikaslea jartzen duelako erdian, bere arrakasta eta ongizatea bilatuz. Edukietan eta temarioetan oinarritutako iraganeko irakaskuntza eredu batetik, konpetentziak, irteera profilak eta etengabeko ebaluazio eta doikuntza etorkizunerako eredu batera bideratuz. Aldi berean, eta Arte Plastiko eta Diseinuko ikasketei dagokionez, “gradu”<sup>2</sup> hitza MECES2-ko ikasketa guztientzako finkatzen du, Goimailako Irakaskuntza Artistikoen ikasketa hauek Europa mailan dagoeneko baduten baliokidetasuna bermatuz.

Aldi berean, LOM-LOEak Goimailako Irakaskuntza Artistikoei lege propio bat agintzen digu bederatzigarren xedapen gehigarrian.<sup>3</sup> Azkenengo aldaketa sakonetik, LOGSE-an, eta 33 urte pasatu eta gero, *aurten bai!* leloari helduz, Hezkuntza Ministerioak Oinarrizko Lan Dokumentu<sup>4</sup> bat argitaratu zuen 2022ko azaroan, 2023ko otsailaren erdialderako lege aurreproiektu bat kaleratzea espero delarik.

Ministerioaren dokumentu honek LOM-LOEarekin bat dator ikaslea erdian jarriz, eta, logikoa denez, gure irakaskuntzetarako zuzenduta dauden aspektu batzuk gehiago zehazten ditu: graduetakoa ikasleen kasuan, unibertsitate ikasleen eskubideak parekatzeko nahia adierazten da; eta zikloetakoa ikasleen kasuan dagoeneko LOM-LOE-ak erantzun egokia ematen duela esaten du.

---

<sup>1</sup> *Zuzendaritza-Proiektua egiteko laguntza-gida*. Hezkuntza Ikuskaritza eta Berritzeguneetako Lidergo Pedagogikoa eta Hezkuntza Eraldaketarako taldea. 1. bertsioa. 2022ko abendua. 7. or.

<sup>2</sup> *Ley Orgánica 3/2020, de 29 de diciembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación* (Artículo único, cuarenta y tres)

<sup>3</sup> *Ley Orgánica 3/2020, de 29 de diciembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación*. Disposición adicional novena.

<sup>4</sup> *Ley de Enseñanzas Artísticas Superiores a debate. Documento base. Claves para el diálogo*. Ministerio de Educación y Formación Profesional. Noviembre de 2022.

Sarrera honetako azterketa juridikoa ziurrenik hotza eta arrotza egiten bada ere, ikaslea erdian jartzeko enfokea oso zutabe konkretu baten sustatzen da: ikasle guztien arrakasta eta ongizatea. Lorpen horrek, domino efektuaren ondorioz, komunitatearen arrakasta eta ongizatea ekarriko du. Hiri Hezitzaileko gutunak dioten moduan, *“hezkuntza eskolako harresietatik haratago doa, hiri osoan hedatzeko”*.<sup>5</sup>

Hain abstraktuak suertatu ahal diren egitasmoak oso era analitiko baten gauzatu ahal dira: lehenik eta behin irteera profila definituz; ondoren, irteera profil hori lortzeko beharrezkoak diren helburuak definituz; helburuak lortzeko, ekimen konkretuak planteatuz; ekimen horien arrakasta neurtzeko, lorpen adierazleak definituz; lorpen adierazleak aztertuz, ebaluazioa eginez; eta ebaluazio ostean, hobekuntza proposamenak eta doikuntzak inplementatuz.

Ikasle guztien arrakasta eta ongizatea bilatzeko agindua jasotzen dugu eskolek, pedagogikoa eta pertsonala. Bide horretan, orain arteko ezagutza kontzeptuala eta konpetentzia teknikoak ez dira nahikoak. Ikaslearen etorkizuneko ongizatea bere lan etorkizunerako prestakuntzatik ere etorriko da. Eta irteera hori arrakastatsua izateko, eskolak ere prestatu behar du.

Ikaslea *izarra* duen *planeta sistema* honetan, hainbat *planeta ezberdin* topa ditzazkegu, bakoitzak bere *pisu*, *orbita* eta *satelite propioekin*.

Unibertsoaren analogiari helduta, irakasleria da ikasleengandik gertuen dagoen *planeta*, eta, neurri baten, *orbita* eta *atmosfera* propioa duela esan genezake. Une hau intentsitate ezberdineko lurrikarekin josita dago. Alde batetik, EPE prozesua dela eta. Eta, bestetik, Goimailako Irakaskuntza Artistikoen legeak irakaslerian aldaketak ekarriko dituelako. Baina, abestiari ekinez, *the show must go on*: egoera honek ez luke ikasleengan eragin negatiborik eduki beharko, edo saihesten saiatu beharko ginateke behintzat.

Gure weborrian irakurri daitekeen manifestuan *Diseinua mundua eraldatzen duen zerbitzu publiko bat dela* aldarrikatzen dugu IDarte-n<sup>6</sup>. Hainbat balore defendatzen ditugu: hezkuntza, berrikuntza, eginez ikastea, etengabeko hobekuntza, ausardi puntu bat eta, nola ez, aniztasuna eta inklusioa. Ongi etorri!

---

<sup>5</sup> Hiri Hezitzailearen Gutuna. Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Erakundea. [www.edcities.org](http://www.edcities.org)

<sup>6</sup> [www.idarte.eus/eskola/](http://www.idarte.eus/eskola/)

## 2. ZUZENDARITZA TALDEA: KOLABORATZAILE TALDEA

\_ Estibaliz Iregi Etxebarria: zuzendari-hautagaia. Gaztetan diseinua ikasi nahi zuen Arte Ederretan lizentziatua, Injenieru Tekniko Mekanikoa, eta Diseinu Kudeaketan masterduna. Bizikleta zalea eta, lankideen arabera, excel kalkulu orri zalea baita ere.

Zuzendaritza Taldea:

\_ Ikasketa Burua: José María Goiri Sanchoyerto. Arkitektua eta argazkilaria. Diseinu editorialean aritutakoa. Denbora eta espazioa kudeatzen aditua.

\_ Idazkaria: Iban Lizundia Alkorta. Arkitektua eta Gastronomia Espazioen Diseinuan masterduna. Ekintzaitzan eta berrikuntzan esperientzia profesionalduna. Teknologia zalea eta boluntarioa edozein gailu berri martxan jartzeko.

Zuzendaritza ereduari dagokionez, zikloturismo grupetta baten adibidea erabiliko dugu:

\_ Grupetta baten bizikidetza praktikatzan da: bidean topatzen diren txirindulariak agurtu egiten dira, eta laguntza eskeintzen da lagun bat beharrean ikusten bada bide bazterrean.

\_ Grupetta baten *inter-pares* formakuntza dago. Txirindulari batek arazo mekaniko bat badauka, lagunek arazo hori konpontzen erakusten diote.

\_ Grupetta bat inklusiboa da (eta orain gehiago, bizikleta elektrikoei esker).

\_ Grupetta baten elkarkidetza praktikatzan da: egun txarra duenari "a rueda" jartzeko esaten zaio. Eta pertsona horrek egun ona duenean, taldetik tira egiten du.

\_ Grupetta baten konfiantza lantzen da. Aurrekoak atzekoari errepidearen arriskuak markatzen dizkio (zuloak, bide bazterreko zikinkerri arriskutsua...) Lagun ba jausten bada, ziurrenik beste batzuk ere jausi egingo dira.

\_ Grupetta bat era organiko baten antolatzen da kontrako haizeari aurre egiteko.

\_ Grupetta baten ikerkurtza eta erronkak lantzen dira: ibilbide berriak proposatzen dira, zailagoak diren portuak...

\_ Grupetta baten denek sufritzen dute gorako maldan, eta denek disfrutatzen dute portua jeisterakoan.

\_ Grupetta baten aurrerakuntza teknologikoaren inguruan jakin-mina dago: bizikleta berriak, GPS berriak, arropa berria...

\_ Grupetta baten harreman gune ez formalak sortzen dira. Kafea edo hamaiketakoa hartzeko eten bat egiten da.

\_ Grupetta baten arinago zoaz bakarrik baino.

### 3. ERAGILEAK: IDarte UNIBERTSOA

Puntu honetan IDarte komunitatea nortzuk osatzen dugun ikusiko dugu. Gure arloko eskola publiko bakarra gara Euskadin, eta horrek zeharo baldintzatzen gaitu.

#### **Barne eragile nagusiak:**

// **Ikasleak:** estatistikoki, IDarte-n matrikulatzen den ikaslea 18 urteko emakume bat da. Beste ikasketa mota batzuekin alderatuta, IDarte-n lan eremu konkretuentzako (barne diseinua, diseinu grafikoa, animazioa, argazkilaritza edo ilustrazioa) prestakuntza hobea eskeintzen diegula uste dute. Graduetako ikasle askok unibertsitatean matrikulatzen direla uste dute, eta zikloetako ikasleen artean ere, askok Lanbide Heziketan matrikulatuta daudela uste dute. Zentzu horretan, informazioa falta zaie.

// **Irakasleak:** bigarren hezkuntzako irakasleak garen einean, irakaskuntza profila dugu soilik, eta, legalki, ez zaigu ikerkuntzarik, diseinu sorkuntzarik edo sorkuntza artistikorik ez eskatzen ezta baloratzen.

// **Familiak:** Ate Irekietan gero eta partaidetza handiagoa dute. Behin ikasleak matrikulatuta, kontutan hartu behar da ikasleak helduak direla, eta familiei ezin diegula ez asistentziari buruzko informaziorik ezta kalifikaziorik eman. Egoera horrek gaizki ulertuak eta gatazkak sortzen ditu.

// **Ez-irakasleak (PAS, garbiketa):** Estamentu honetako kideak eskola bateko altxor ezkutua dira. Askotan, eskolaren lehen ahotsa eta aurpegia.

#### **// Hezkuntza Saila:**

*Planeta* honek *satelite* asko ditu. Baten batzuk aipatuko ditugu, euren ardurak zehaztuz:

\_ Hezkuntza Sailburuordetza. Zehatzago, Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritza: plangintza orokorra, aurrekontua, COCU-a, hainbat eguneroko arautegi (dekretuak, jarraibideak, ebazpenak...)

\_ Azpiegitura Zuzendaritza: obrak eta baliabide digitalak.

\_ Unibertsitate Sailburuordetza: ikasleen bekak eta Erasmus bidai aseguruak. Egunen baten, Unibasq-ekin harremanetan jartzea lortzen badugu, sailburutza honen eskutik izan beharko da.

\_ Berritzegune Nagusia: orain arte ez dugu inoiz erreferentziko Berritzegunerik izan. Aurten, lehenengo aldiz, Bilboko Berritzegune Nagusia da erreferentzia.

\_ Arabako Lurralde Ordezkaritza: pertsonala, nominak, arazo juridikoak...

\_ Ikuskaritza: eskolaren alderdi pedagogikoak eta kudeaketakoak legeari jarraituz betetzen direla kontrolatu eta ebaluatu egiten du

#### // Kanpoko eragile nagusiak:

\_ Hizkuntzen hedapen geografikora eta ikasleen jatorrira lotutako eragileak: Betoñoko auzotik abiatuta, eta Gasteizko hiritik jarraituz, EEAKo, Nafarroako eta Iparraldeko herri eta udaletxeak. Bereziki: Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Legazpi; Haez gain, EEAKo Foru Aldundiak.

\_ Estatu mailakoak: ACESEA (Asociación Española de Centros Superiores de Enseñanzas Artísticas) eta CEA (Confederación de Escuelas de Arte)

\_ Nazioartekoak: Erasmus programari esker egindako harremanak.

\_ Goimailako ikasketetara lotuta, Euskadin: Musikene, Dantzerti

\_ Zikloetara lotuta, Euskadin: Usandizaga BHI, Ibarrekolanda BHI, Txurdinaga BHI, Bidebieta LHII

\_ Transferentziari, ikerkuntzari eta ezagupen trukatzeari lotutakoak: KSIgunea, clusterrak (Habic, ...), praktiketako enpresak, kultura erakundeak (Artium, Guggenheim Bilbao Museoa), elkarteak (Euskal Irudigileak), Elkargo profesionalak, bestelakoak (Mazoka, Gazte Klik Klak, Tetra Pak, eskaparatismo lehiaketa, Vital Fundazioa)

\_ Alumni-ak, gure enbaxadorerik onenak bihur daitezken einean.

#### 4. IDarte-ren AZTERKETA DIAGNOSTIKOA

##### Diagnostikoa egiteko honako baliabide hauek erabili dira

Barne analisia:

\_ Estrategia Dokumentua.

\_ Kalitate Plana.

\_ Aurreko zuzendaritza proiektua.

\_ Irakasleei egindako inkestak: 2017 eta 2023 urtekoak

\_ Ikasleei egindako inkestak: 2023

\_ Google My Bussiness Reviews

\_ Autoebaluazioa

Kanpo analisia:

\_ Euskadiko Kultura eta Sormen Industrien (KSI) dokumentazioa

\_ Hezkuntza Sailaren jarraibideak: arautegia eta gomendioak

\_ Ikuskaritzako eta Berritzeguneetako dokumentuak.

\_ Estatus mailako arautegi aldaketak: Ley de Enseñanzas Artísticas Superiores, LOM-LOE, LOSU

\_ ACESEA-ko eta CEA-ko dokumentuak

## // IDarte-ko jarduera akademikoa definitu behar duen alderdi legala:

### \_ Graduetan

“Conforme a los principios establecidos en la declaración conjunta de los ministros de Educación de Bolonia de 19996, las enseñanzas artísticas superiores que se ofertan en los Conservatorios Superiores y Escuelas se estructuran en dos niveles: el primero de ellos, correspondiente a las enseñanzas conducentes al título de grado en enseñanzas artísticas, tiene como finalidad la obtención por parte del estudiante de una formación general, en una o varias disciplinas, y una formación orientada a la preparación para el ejercicio de actividades de carácter profesional. Dentro del nivel de posgrado se encuentran las enseñanzas de máster, que tienen como finalidad la adquisición por el estudiante de una formación avanzada, de carácter especializado o multidisciplinar, orientada a la especialización académica o profesional, o bien a promover la iniciación en tareas investigadoras. Al mismo tiempo, la normativa vigente encomienda a las Administraciones educativas el fomento de convenios con las universidades para la organización de estudios de doctorado propios de las enseñanzas artísticas”.<sup>7</sup>

### \_ Zikloetan

“En este sentido, es necesario resaltar el valor de mantener una estrecha relación entre las enseñanzas artísticas profesionales y el resto de las enseñanzas no universitarias; no solo por el hecho de que ambas se dirigen mayoritariamente a estudiantes de las mismas edades, que a veces las cursan de manera simultánea, sino porque los títulos asociados a unas y otras son equivalentes desde el punto de vista académico y en sus efectos laborales.”

—

“Asimismo, sería éste el marco idóneo para avanzar en la correspondiente equiparación de estas enseñanzas con la formación profesional en todos los avances y mejoras que incorpora en ellas el nuevo marco normativo, siempre manteniendo la idiosincrasia de estas enseñanzas.”<sup>8</sup>

---

<sup>7</sup> *Ley de Enseñanzas Artísticas Superiores a debate. Documento base. Claves para el diálogo.* Ministerio de Educación y Formación Profesional. Noviembre de 2022.

<sup>8</sup> *Ley de Enseñanzas Artísticas Superiores a debate. Documento base. Claves para el diálogo.* Ministerio de Educación y Formación Profesional. Noviembre de 2022.



// **Funtzio publikoari lotutakoak**, eta 11/2022 Legeak, abenduaren 1ekoa, Euskal Enplegu Publikoari buruzkoak, deskribatzen dituenak.<sup>9</sup>

// **IDarte-k berak garatu beharreko kode etikoari dagozkionak**, Estrategia Dokumentutik eta Kalitate Planatik abiatuz, komunitatearen ongizatean oinarrituz, eta helburuen artean jasoko direnak.

// **AMIA (Aukera, Mehatxu, Indargune, Ahulezia) analisia (DAFO)**

## **\_ Kanpokoak**

### **Mehatxuak**

- > Graduetan, unibertsitatearen pisua eta indarra. Gainjarpen eremuak vs eremu propioak. (ACESEAKo dokumentuak)
- > Graduetan, zentru pribatuen indarra eta autonomia. (Ministerioko dokumentua)
- > Zikloetan, lanbide heziketaren pisua eta indarra. Gainjarpen eremuak vs eremu propioak. (Ministerioko dokumentua. CEA-ko hausnarketak)
- > Gure ikasketen linboa hezkuntza sisteman (irakasleak / inkestak)
- > Metodologia aldetik, atzeratuak egotearen arriskua (ERAGIN EHU, PBL, ETHAZI, metodologia aktiboak)

### **Aukerak**

- > Gizartearen onerako proiektu baliogarriak egin ahal izatea (Hiri Hezitzailea, Belaunaldien Arteko Legazpi)
- > Goimailako Irakaskuntza Artistikoaren legetik etorri ahal diren hobekuntzak: MECES2 onarpena; autonomia; harreman hobekuntza Musikenerekin eta Dantzertirekin.
- > Euskadin, Nafarroan eta Iparralden presentzia eduki ahal izatea.

## **\_ Barnekoak**

### **Indarguneak**

- > Ikasleekin dagoen harreman ona (irakasleak/inkestak)
- > Inplikazioa (irakasleak/inkestak)
- > Komunikazio baliabideak (ikasleak/inkestak)
- > Irakasleen inplikazioa (ikasleak/inkestak)

---

<sup>9</sup> Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

- > Hobetzeko gogoia (ikasleak/inkestak)
- > Eskuratutako kompetentziak (ikasleak/inkestak)
- > Inklusioa. Jendeak ez du besteen itxura fisikoa epaitzen. Elkarbizitza ona. Ikasle bakoitzari bere erritmora joateko aukera ematea (ikasleak/inkestak)
- > Ikasle / irakasle ratioa. Talde txikiak.
- > Irakasleen atxikimendua. Nahiz eta interinitate asko egon, irakasleek IDarte-n plaza hartzea lehenesten dute (COCU)

### **Ahuleziak. Hobetzeko eremuak**

- > Hezkuntza Sailak ikaslearen ongizatearekin lotutako plan eta protokolo ezberdinak argitaratu ditu urteetan zehar, eta gu kanpoan geratu gara. Plan horiek aztertu eta geurera ekarri behar ditugu.
- > Irakasleriaren egoerak ikaslegoan daukan eragin negatiboa (ikasleak/inkestak)
- > Ebaluazio kolegiatuari buruzko formakuntza eza.
- > IDarte-ren heziketa proiektua ezagutza falta (ikasle & irakasle / inkestak)
- > Zuzendaritza taldearekiko mesfidantza. Gatazkak (irakasleak/inkestak)
- > Elkarbizitza arazoak. Lan harreman eta giro txarra. Barne gatazkak. Errespetu faltak. (irakasleak/inkestak)
- > Amankomuneko helburuen eta adostasun falta (irakasleak/inkestak)
- > Ikasketen edukiak, metodologia eta ebaluazio prozesua hobetu beharra (ikasleak/inkestak)
- > Ikasketak gizartean eta lan munduan isladapen falta (ikasleak/inkestak)
- > Ordezkapen eta ordutegiaren betetze maila (ikasleak/inkestak)
- > Praktiken kudeaketa (ikasleak/inkestak)
- > Irakasgaien arteko gainjarpenak. Irakasgai bakoitzean proiektu ez bateratuak lantzea (ikasleak/inkestak)
- > Irakasleek material prestaturik ez edukitzea, eta ordezkapenetan transmisiorik ez egotea (ikasleak/inkestak)

## **5. HELBURUAK**

Lau helburu nagusi proposatzen dira zuzendaritza proiektu honetan. Kate bat sortuz, lau helburu horiek lan lerro nagusiak bideratutako dituzte. Helburu nagusi horiek betetzeko, hainbat helburu instrumentalak lortu beharko dira, ekimen konkretuen bidez. Ekimenen arrakasta neurtzeko jarraipen adierazleak definituko ditugu eta, bukatzeko, hau guztiau denboran planifikatuko dugu.

Helburu nagusiak:

- H1. Estrategia Dokumentua bete
- H2. IDarte-ko komunitatea osatzen dugunon ongizatea
- H3. Arautegia eta jarraibideak eguneratu
- H4. Eraldaketa pedagogikoa: IDarte sistema

Estrategia Dokumentuak asmo eta egitasmo eragileak finkatzen ditu, eta IDarte-k gizarteari itzuli nahi dion ondarearen lekukoa da. Bertako dekalogoak bete nahi dugu, noski. Baina nabarmen handiko hiru gaiei foko eta garrantzi propioa emango diegu.

Horrela, 2021-22ko Estrategia Dokumentuak, dekalogo hau proposatzen du. Puntu bakoitzaren ondoren zein helburutan garatuko den atal hori adierazten da:

1. Kalitateari lotutako helburuak (Kalitatearen Barne Bermearen Sistemak hala eskatuta) >> H1
2. Kurrikuluma berritzeari eta hezkuntza eskaintza garatzeari lotutako helburuak (gure hezkuntza arloan erreferenteak izateko helburuari lotuta) >> H4
3. Hobekuntza pedagogikoari lotutako helburuak (barne ezagutzaren transmisioa bermatzen duena eta praktika onetan oinarritzen dena) >> H4
4. Komunikazioari lotutako helburuak (zentzu bikoitza baten, alde batetik edukin sortaileak garelako eta, bestetik, barne eta kanpoko komunikazioa hobetzeko) >> H1
5. Hezkuntza erkidegoaren sarea hobetzeari lotutako helburuak, gure jarduera gizarteari itzultzeko era den aldetik >> H1 eta H4
6. Baliabideen kudeaketari lotutako helburuak (giza baliabideen inplikazioa eta antolakuntza, eta azpiegitura baliabideen beharrak) >> H2 eta H3
7. Erantzunkizuk sozialari lotutako helburuak, gizarteari prestakuntza-zerbitzu integralak eskaintza era diren aldetik. >> H1, H2 eta H4
8. Diseinuaren sektorearekin lankidetzan aritzeari lotutako helburuak, gure jarduera gizarteari bueltatzeko era den aldetik. >> H2, H3 eta H4
9. Hizkuntza normalkuntzari lotutako helburuak >> H1 eta H4
10. Gure jarduera nazioarte bihurtzeari lotutako helburuak >> H1 eta H4

Denboralizazioari dagokionez, kontutan hartu behar da etengabeko hobekuntza prozesuak inplementatzen hasten garenean, hasiera data bat jarri ahal dugula, baina, bukaera datarik ez dagoela. Aldiroko ebaluazio prozesuen bitartez, etengabeko doikuntzak eta hobekuntzak egon behar dira.

## H.1 Estrategia dokumentua bete

HI Zb	HELBURU INSTRUMENTALA	HELMUGA Zb	HELMUGA	EKINTZA Zb	EKINTZA	LORPEN ADIERAZLEAK (kpi)	23-24	24-25	25-26	26-27
H1.1	Kalitateari lotutako helburuak	H1.1.1	Etengabeko hobekuntza ohiturak ezarri ikastetxean	EK1.1.1.1	Lan taldea sortu eta prozesuen arduradunak definitu	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldearen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa	X			
				EK1.1.1.2	Etengabeko hobekuntzarako prozedura sortu	Etengabeko hobekuntzarako metodologiak aztertu egin dira, eta aktan jaso da IDarte-rako egokiena	X			
				EK1.1.1.3	Etengabeko hobekuntzarako prozedura inplementatu	Etengabeko hobekuntzarako prozedura eragileei komunikatu egin zaie	X	X	X	X
						Etengabeko hobekuntzarako prozedurak indarrean jarri dira		X	X	X
						Etengabeko hobekuntzarako prozedurak ebaluatu dira		X	X	X
						Etengabeko hobekuntzarako prozedurak doitu eta hobetu egin dira, ziklo berri bati hasiera emateko			X	X
				H1.1	Kalitateari lotutako helburuak	H1.1.2	KBBS (Kalitatearen Barne Bermearen Sistema SIGC) ezarri	EK1.1.2.1	Prozesuen arduradunak definitu	Aktan jaso da nortzuk diren prozesuen arduradunak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa
EK1.1.2.2	Lanpostuen konfigurazioan erantzi	Eskolako dokumentuetan informazio hori ezagutzera eman da: COCU-a, Urteko Plana, etab.	X					X	X	X
EK1.1.2.3	Interes-talde guztien gogobetetasuna ebaluatu	Gogobetetasuna neurtzeko tresna garatu da (inkesta edo bestelakoak)	X							
		Etengabeko hobekuntza prozedimenduaren arabera ebaluatu da						X	X	X

HI Zb	HELBURU INSTRUMENTALA	HELMUGA Zb	HELMUGA	EKINTZA Zb	EKINTZA	LORPEN ADIERAZLEAK (kpi)	23-24	24-25	25-26	26-27
H1.4	Komunikazioari lotutako helburuak	H1.4.1	Eragileak (stakeholder-ak) eta komunitatea definitu	H1.4.1.1	Lan taldea sortu	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldeen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa	X			
				H1.4.1.2	Eragileak definitu	Eragile zerrenda sortu da, eta doikuntza eta hobekuntza plana (prozedura) indarrean jarri da. Eragileen oinarritzko zerrenda: ikasleak, irakasleak, ez-irakasleak, guraso/familiak, udaletxea, Hezkuntza Saila, EEA-ko Lurralde Historikoak, Nafarroa (eremu euskalduna azpimarratuz), enpresak (praktikak, lan poltsa, erronkak), erakunde kolaboratzaileak (KSi gunea, Vital Fundazioa, EIDE, FAD, READ, Euskal Irudigileak, Bilbao Ekintza...), museoak (Artium, Guggenheim...)	X			
		H1.4.2	Komunikazioa zeharkako Komunikazio planak sortu.	H1.4.2.1	Lan taldeak sortu eta prozesuen arduradunak definitu	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldeen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa	X			
				H1.4.2.2	<b>Barne komunikazio plana</b> diseinatu	Ikastetxearen barruko berriak komunikatzeko ibilbide orriak eta prozedurak garatu eta inplementatu dira	X	X		
				H1.4.2.3	Eduki sortzaileak garelako kontutan hartuz, <b>kanpo komunikazio plana</b> diseinatu	Komunikazio ibilbide orriak zerrendatu eta garatu egin dira: sare sozialetako argitalpenak, weborriko argitalpenak, prentsa eta hedabideetarako argitalpenak, Hezkuntza Sailari zuzendutako argitalpenak (orientatzaileak, Berritzeguneak, Sailburuordetzako zuzendaritzak, kanpo erakunde eta enpresei zuzendutako argitalpenak...)	X	X		

HI Zb	HELBURU INSTRUMENTALA	HELMUGA Zb	HELMUGA	EKINTZA Zb	EKINTZA	LORPEN ADIERAZLEAK (kpi)	23-24	24-25	25-26	26-27
H1.4	Komunikazioari lotutako helburuak	H1.4.3	Alumni sare bizia eta indartsua eduki	H1.4.3.1	Prozesuen arduradunak definitu	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldeen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa	X			
				H1.4.3.2	Alumni kontaktuak eskuratu	Alumni kontaktuak batu dira	X			
				H1.4.3.3	Alumnientzako figurak eta paperak definitu	Figurak sortu eta profilatu dira: mentorea, enbaxadorea, trebatzailea, cicerone...	X	X		
				H1.4.3.4	Foro egokia sortu	Foroak sortu dira (LinkedIn, weborria...)		X		
				H1.4.3.5	Sarea doitu eta hobetu	Doikuntza eta hobekuntza plana inplementatu da			X	
		H1.4.4	Gure ikasleen jatorria kontutan hartuta, eta Euskadiko Arte eta Goimailako Diseinu Eskola publiko bakarra garen eanean, gure ikasleen lana eta ekimenak eremu geografiko guztietara zabaldu	H1.4.4.1	Lan taldeak sortu	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldeen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa	X			
				H1.4.4.2	Aurreikusitako ekimen plana egin	Eremu geografiko ezberdinetan aurrera eraman ahal diren ekimenak definitu eta planifikatu dira (auzoa-Betoño, hiria-Gasteiz, Lurraldeak-Euskadi, hizkuntza-lurraldeak-Nafarroa/Iparalde, nazioartekoa-Erasmus/internalizazio bekak)	X			
				H1.4.4.3	Ekimen inplementazio plana egin	Ekimenak gelara nola eramango diren planifikatu da: erronka, ikasle taldeak, kanpoko gonbidatuak eta eragileak, barne arduradunak, denboralizazioa, ebaluazioa	X	X	X	X
				H1.4.4.4	Barne eta kanpo komunikazio planak indarrean jarri	Komunikazio estrategia aplikatu da		X	X	X

HI Zb	HELBURU INSTRUMENTALA	HELMUGA Zb	HELMUGA	EKINTZA Zb	EKINTZA	LORPEN ADIERAZLEAK (kpi)	23-24	24-25	25-26	26-27
H1.4	Komunikazioari lotutako helburuak	H1.4.5	Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan gure hezkuntza eskaintza ezagutarazi	H1.4.5.1	Lan taldeak sortu	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldeen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa	X			
				H1.4.5.2	Aurreikusitako ekimen plana egin	BH-n eta LH-n garatu ahal diren ekimenak zerrendatu, sailkatu eta planifikatu egin dira	X	X	X	X
				H1.4.5.3	Ekimen inplementazioa gauzatu	Planifikatutakoa eta gauzatutakoa ebaluatu egin da (erakusketak, aurkezpenak, prestakuntza jarduerak, formakuntza jarduerak...)		X	X	X
		H1.4.6	IDarte-k nahi duen ikasleen perfila definitu eta komunikatu	H1.4.6.1	Lan taldea sortu	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldeen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa	X			
				H1.4.6.2	Portaera liburua sortu	Adibideak aztertu dira eta portaera liburu propioa garatu da		X		
				H1.4.6.3	Manifestua zabaldu	Eskola manifestua eta portaera liburuak komunikazio ekimenetan eta baliabideetan ezagutarazi da			X	
				H1.4.6.4	Doikuntza eta hobekuntza	Doikuntza eta hobekuntza prozedura garatu eta inplementatu da			X	X

HI Zb	HELBURU INSTRUMENTALA	HELMUGA Zb	HELMUGA	EKINTZA Zb	EKINTZA	LORPEN ADIERAZLEAK (kpi)	23-24	24-25	25-26	26-27
H1.5	IDarteko hizkuntza plana garatu (HP)	H1.5.1	IDarte-ko Hizkuntza Planaren barruan, Euskara Normaltzeko Plana garatu.	H1.5.1.1	IDarte-ko HP taldea sortu	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldeen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa	X			
				H1.5.1.2	HP-aren marku kontzeptuala idatzi	IDarteko Hizkuntza Planaren marku kontzeptuala garatu da. Manifesto bat eta dokumentu bat daukagu.	X			
				H1.5.1.3	HP-aren eremu prozedimentala garatu: prozedurak eta baliabideak	Euskara Normaltzeko Planaren eremu prozedimentala garatu da. Protokoloak, txantiloiak eta bestelako tresnak garatu dira.		X		
			H1.5.1.4	HP-a inplementatu	Hezkuntza Sailarekin inplementazioa eta baliabideak adostu dira			X	X	
			H1.5.1.5	HP-a doitzeko eta hobetzeko prozedura inplementatu	Jarraipena eta ebaluazioa egiteko tresnak garatu dira				X	
			H1.5.1.6	Erasmus programaren harrera eta ibilbide orriak prozedimentatu: incoming ikasle eta irakasleen harrera; outgoing ikasleen eta irakasleen ibilbide orria	Erasmus programaren harrera ibilbide orriak prozedimentatu dira (ikasleak, irakasleak, ez-irakasleak)	X	X	X	X	
			H1.5.1.7	Erasmus programa indartu	Weborrian dagoen informazioa hobetu eta osatu da	X	X	X	X	



## H.2 IDarte-ko komunitatea osatzen dugunon ongizatea

HI Zb	HELBURU INSTRUMENTALA	HELMUGA Zb	HELMUGA	EKINTZA Zb	EKINTZA	LORPEN ADIERAZLEAK (kpi)	23-24	24-25	25-26	26-27
H2.1	Ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzen duten planak garatu eta inplementatu: Ongizate planak	H2.1.1	Egoeraren diagnostikoa egitea	H2.1.1.1	Diagnostiko taldea osatu da	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldeen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa	X			
				H2.1.1.2	Artearen egoera: Behar ditugun planak zehaztu	Hezkuntza Sailak dituen planak aztertu egin dira: hezkuntza premia bereziak, hezkidetza, bizikidetza, berdintasuna, inklusioa, kulturelkartasuna, ...	X			
						Goimailako Eskolek eta unibertsitateek dituzten planak aztertu dira: kode etikoak, berdintasun planak, ingurumen politikak, erantzunkizun soziala, gardentasuna, ...	X			
						Bestelako erakundeek dituzten planak aztertu dira: Hiri Hezitzaile..	X			
						Irteera profilak eta sarrera profilak zehaztu dira	X			

HI Zb	HELBURU INSTRUMENTALA	HELMUGA Zb	HELMUGA	EKINTZA Zb	EKINTZA	LORPEN ADIERAZLEAK (kpi)	23-24	24-25	25-26	26-27	
H2.1	Ikasle guztien aukera berdintasuna bermatzen duten planak garatu eta inplementatu: Ongizate planak	H2.1.2	Ongizate planen garapena eta inplementazioa	H2.1.1.3	Marko kontzeptuala garatu	Garapen plana zehaztu eta denboralizatu da: egin beharreko planak zerrendatu dira, eta lehentasunak ezarri dira. Manifesto bat idatzi da.		X			
				H2.1.1.4	Prozedimentatu	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldeen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa		X			
						Erabakitako planak garatu dira: prozedurak, protokoloak, etab.		X			
						Ongizatearen integrazio kurrikularra aurreikusi da		X			
				H2.1.1.5	Inplementatu	Ongizate planak martxan jarri dira, eta kurrikulum-etan integratu dira			X		
				H2.1.1.6	Jarraipena egin	Ongizate planen jarraipena eta Integrazio kurrikularren jarraipena egin dira			X	X	
				H2.1.1.7	Ebaluazioa	Ongizate egoera ebaluatu da. Integrazio kurrikularra ebaluatu da.			X	X	
H2.1.1.8	Doikuntzak eta hobekuntzak egin	Planetan eta integrazio kurrikularrean doikuntzak eta hobekuntzak egin dira					X				

HI Zb	HELBURU INSTRUMENTALA	HELMUGA Zb	HELMUGA	EKINTZA Zb	EKINTZA	LORPEN ADIERAZLEAK (kpi)	23-24	24-25	25-26	26-27
H2.2	IDarte-ko kideen artean gatazkak era baketsuan konpontzeko konpromisoa gauzatu	H2.1.2	Gatazken ebazpenerako protokoloak izatea	H2.1.2.1	IDarteko kode etikoa garatu	IDarteko kode etikoa garatu eta inplementatu da	X			
				H2.1.2.2	Protokoloak egokitu eta komunikatu	Ikuskaritzak dituen protokoloak egokitu eta Kalitate Sistemari integratu dira	X			

### H.3 Arautegia eta jarraibideak eguneratu

2023ko otsailaren erdialdean, Hezkuntza eta Lanbide Heziketa Ministerioak Goimailako Irakaskuntzetako Lege berriaren aurreproiektua argitaratuko duela aurreikusita dago. LOM-LOEaren markuaren barruan egonda, edo marku berri batera abiatuta ere, ondoren aipatuko diren helburu instrumentalak beharrezkoak dira. Dokumentu hau aurkezten den une honetan, ezin dira beraz ekintza guztiak zeharo zehaztu.

HI Zb	HELBURU INSTRUMENTALA	HELMUGA Zb	HELMUGA	EKINTZA Zb	EKINTZA	LORPEN ADIERAZLEAK (kpi)	23-24	24-25	25-26	26-27
H3.1	IDarteren dokumentu estrategiko guztiak eduki	H3.1.1	Ikastetxearen Hezkuntza Plana eduki	H3.1.1.1	Ikastetxearen Hezkuntza Plana idatzi	Estrategia dokumentua eta zuzendaritza proiektua irizpide, Ikastetxearen Hezkuntza Plana idatzi da	X	X		
		H3.1.2	AJA-ROF-a eguneratu	H3.1.2.1	AJA-ROF-a eguneratu	Ikuskaritzaren irizpideak jarraituz, AJA/ROF-a eguneratu da	X	X		

HI Zb	HELBURU INSTRUMENTALA	HELMUGA Zb	HELMUGA	EKINTZA Zb	EKINTZA	LORPEN ADIERAZLEAK (kpi)	23-24	24-25	25-26	26-27
H3.2	IDarteren hainbat prozedura eguneratu	H3.2.1	Irakasleen harrera eguneratu	H3.2.1.1	Bizikidetza ekimenak burutu	Ikasturte hasieran, irakasleak elkarren artean ezagutzeko ekimenak burutu dira	X			
				H3.2.1.2	Saio juridikoa eman	Irakasleek IDarte-ren marku juridikoa ezagutzeko formakuntza saioa burutu da	X	X	X	X
				H3.2.1.3	Saio pedagogikoa eman	Irakasleek IDarte-n erabiltzen diren baliabideak ezagutzeko formakuntza burutu da: classroom, irakaslearen koadernoak, baliabide pedagogikoen biblioteka,..	X	X	X	X
		H3.2.2	Ikasleen harrera eguneratu	H3.2.2.1	Bizikidetza ekimenak burutu	Ikasturte hasieran, bizikidetza ekimenak burutu dira	X	X	X	X
				H3.2.2.2	Komunikazio ekimena burutu	Eskubide eta betebeharren dokumentazioa eguneratu da, eta ikasleei azaldu zaie	X	X	X	X
		H3.2.3	Ez-irakasleei dagozkien prozesuak prozedimentatu	H3.2.3.1	Ez-irakasleen harrera plana egin	Kalitate Sistemaren irizpideak jarraituz, ez-irakasleek harrera planak idatzi dira			X	X

#### H.4 Eraldaketa pedagogikoa: IDarte sistema

Ikasketa Plan guztiak premia sozial berrietara eta merkatuen premietara egokitu behar ditugu, LOM-LOE-a eta Goimailako Irakaskuntza Artistikoen legea (2023) betez, eta Unibasq-eko akreditazioa jasotzeko prest utziz.

HI Zb	HELBURU INSTRUMENTALA	HELMUGA Zb	HELMUGA	EKINTZA Zb	EKINTZA	LORPEN ADIERAZLEAK (kpi)	23-24	24-25	25-26	26-27
H4.1	Hezkuntza eskeintza guztiaren irteera profilak zehaztu	H4.1.1	Hezkuntza eskeintza guztiaren irteera profilak zehaztu	H4.1.1.1	Taldea osatu	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldeen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa	X			
				H4.1.1.2	Ikerkuntza metodologia zehaztu	Ikerkuntza metodologia zehaztu da. Datu azterketa nola egingo den jaso da: kompetentzia profesionalak, zeharkako kompetentziak, ongizatea...	X			
				H4.1.1.3	Datuak jaso: KSI	Kultur eta Sormen Industrietako eragileen iritziak jaso dira	X			
				H4.1.1.4	Datuak jaso: alumni	Alumni-en iritziak jaso dira	X			
				H4.1.1.5	Datuak jaso: praktika kideak	Ikasleek praktikak egiten dituzten enpresen iritzia jaso da (praktika kideak / internship partner)	X			
				H4.1.1.6	Datuak jaso: bestelakoak	Bestelako erakundeen datuak jaso dira	X			
				H4.1.1.7	Txostena idatzi eta komunikatu	Emaitzen txostena egin da, komunitateari jakinarazi zaio, eta irteera profil profesionalak zehaztu dira.	X			

HI Zb	HELBURU INSTRUMENTALA	HELMUGA Zb	HELMUGA	EKINTZA Zb	EKINTZA	LORPEN ADIERAZLEAK (kpi)	23-24	24-25	25-26	26-27
H4.1	Hezkuntza eskaintza guztiaren irteera profilak zehaztu	H4.1.2	Hezkuntza eskaintza guztiaren sarrera profilak zehaztu	H4.1.2.1	Taldea osatu	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldeen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa	X			
				H4.1.2.2	LOM-LOE-a aztertu	LOM-LOE-k batxilergo guztien irteera profilak aztertu dira, eta ondorioen txostena egin da	X			
				H4.1.2.3	Ikasle berrien profilaren diagnostikoa egin	Gure lehenengo mailako ikasleen diagnostiko bat egin da, eta ondorio txostena egin da	X			
				H4.1.2.4	Txostena idatzi eta komunikatu	Emaitzen txostena egin da, komunitateari jakinarazi zaio, eta ikasleen sarrera profilak zehaztu dira.	X			
		H4.1.3	Tarteko irteera eta sarrera profilak definitu	H4.1.3.1	Taldeak osatu	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldeen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa	X			
				H4.1.3.2	Txostena idatzi eta komunikatu	Mailaka eta irakasgaika irteera eta sarrera profilak definitu dira, eta ondorio txosten adostu bat dago	X			

HI Zb	HELBURU INSTRUMENTALA	HELMUGA Zb	HELMUGA	EKINTZA Zb	EKINTZA	LORPEN ADIERAZLEAK (kpi)	23-24	24-25	25-26	26-27
H4.2	IDarte sistema garatu	H4.2.4		H4.1.4.1	Taldeak osatu	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldeen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa	X	X		
				H4.1.4.2	Artearen egoera aztertu	Artearen egoera, praktika onak eta benchmarking egin dira	X	X		
				H4.1.4.3	Adostutako marko kontzeptuala zabaldu	IDarte sistemaren marko kontzeptuala garatu da, eta manifestua argitaratu da	X	X		
				H4.1.4.4	IDarte sistema prozedimentatu	IDarte sistema prozedimentatu egin da. Ebaluazioa jarraibideak argitaratu dira (txantiloak, atazak eta denboralizazioa jarraipenerako dokumentazioa, rubrikak, aktak...) Prozedimentu horietan, ikasleek dituzten hutsuneak antzemateko eta gainditzeko mekanismoak sortu dira.		X	X	
				H4.1.4.5	IDarte sistema inplementatu	IDarte sistema inplementatu da. Zeharkako proiektuak garatu dira.			X	
				H4.1.4.6	Inplementazioaren jarraipena egin	Inplementazioaren jarraipena egin da, eta dagokion dokumentazioa jaso da			X	
				H4.1.4.7	IDarte sistema ebaluatu	IDarte sistemaren inplementazioa ebaluatu da, eta doikuntzak eta hobekuntzak proposatu dira			X	X
				H4.1.4.8	IDarte sistema doitu eta hobetu	Doikuntzak eta hobekuntzak IDarte sistemaren hurrengo fasera eraman dira			X	X

HI Zb	HELBURU INSTRUMENTALA	HELMUGA Zb	HELMUGA	EKINTZA Zb	EKINTZA	LORPEN ADIERAZLEAK (kpi)	23-24	24-25	25-26	26-27
H4.3	IDarte sistema akreditatu	H4.3.1	Ikasketa Plan guztiek akreditazio agentzien eskakizunak betetzea	H4.3.4.1	Taldeak osatu	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldeen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa	X			
				H4.3.4.2	Akreditazio agentzien eskakizunak ezagutu	Unibasq-ekoekin batzarrak egon dira, eta akreditazio prozesua planifikatu da (tramiteak, baliabideak eta denboralizazioa)	X	X		
				H4.3.4.3	IDarte sistema egokitu	IDarte sistema garatzerakoan akreditazio agentzien eskakizunak kontutan hartu dira hasieratik, eta kontrol puntu baten bidez hori ziurtatu egiten da	X	X		
				H4.3.4.4	Ikasketa planak Unibasq-en akreditatu	Ikasketa planak Unibasq-en tramitatu dira eta akreditazioa lortu da			X	

HI Zb	HELBURU INSTRUMENTALA	HELMUGA Zb	HELMUGA	EKINTZA Zb	EKINTZA	LORPEN ADIERAZLEAK (kpi)	23-24	24-25	25-26	26-27
H4.4	IDarte-ko formakuntza eta ikerkuntza plana sortu	H4.4.1	IDarte-ko estrategiarekin lerrokatutako formakuntza eta ikerkuntza plana sortu	H4.4.4.1	Taldeak osatu	Aktan jaso da nortzuk diren lan taldeen kideak, euren zereginak, eta atazen denboralizazioa		X		
				H4.4.4.2	Datuak jaso	Ikerkuntza partner-ak eskuratu dira, eta lerroak finkatu dira		X		
				H4.4.4.3	Diru laguntzak bilatu	Formakuntzarako eta ikerkuntzarako aurrekontua dago		X		
				H4.4.4.4	Formakuntza eta ikerkuntza plana garatu	2023ko Goimailako Irakaskuntza Artistikoak ezarritako baldintzapean, ikerkuntza plana egin da			X	X



## 6. PROIEKTUAREN KOMUNIKAZIOA

2023/02/28 - 14:30: Klaustroari aurkezpena

2023/03/07 - 11:15 Ikasleei aurkezpena (ikasleak helduak direnez, garrantzitsua da eurei zuzenean aurkeztea, eta zalantzak argitzeko aukera ematea). Ez-irakasleei ere gonbidapena luzatuko zaie.

2023/03/07 - 14:30 OOG-ari aurkezpena

Lurralde Ordezkararen onarpen ebazpena jaso ondoren, IDarte-ko weborrian argitaratuko da proiektua, edozeinek kontsulta ahal dezan. Honez gain, proiektu honetan aurkezten dena ulertzeko ezinbestekoa da beste dokumentu hiru irakurtzea:

IDarte-ko aurkezpen manifestua: [www.idarte.eus/eskola](http://www.idarte.eus/eskola)

IDarte-ko kalitate politika: [www.idarte.eus/kalitate-politika/](http://www.idarte.eus/kalitate-politika/)

IDarte-ko Estrategia Dokumentua (proiektuarekin batera “eskola” menupean eskegiko da)

Data zehazten denean, Hautaketa Batzordeari aurkeztuko zaio.

Helburuetan, H1.4 atal osoa komunikazioari eskeini zaio.

---

*Disclaimer.* Diseinu Grafikoko ikasle eta irakasleei zuzendutako ohar txikia.

Dokumentu hau Arial 11 konprimatu gabean maketatu da, 1,5eko lerroartearekin, ezaugarri horiek ez betetzeak penalizazioa dakarrelako balorazioan.

Eskerronak:

Mel Mardaraz, inguratzen gaituzten baliabide guztiak kudeatu izanagatik.

Maiden Zenikazelaia, Erasmus-ean, lekualdatzean eta pandemian egindako lanagatik.

Josu Ayerbe, Iker Etxaburu eta Borja Sobas, proiektu honen lehen helbururako oinarria jartzeagatik.

Grupettatik tiratzeko prest zaudeten guztiei.

## **7. BIBLIOGRAFIA**

### **// Araudia**

Ley Orgánica 3/2020, de 29 de diciembre, por la que se modifica la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación (LOM-LOE)

Real Decreto 1614/2009, de 26 de octubre, por el que se establece la ordenación de las enseñanzas artísticas superiores reguladas por la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación.

Real Decreto 633/2010, de 14 de mayo, por el que se regula el contenido básico de las enseñanzas artísticas superiores de Grado de Diseño establecidas en la Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación.

238/2012 DEKRETUA, azaroaren 21ekoa, Diseinu Grafikoa eta Barnealdean Diseinua espezialitateetako Diseinuko goi-mailako arte-irakaskuntzak ezartzeko eta ikasketa-plana onartzeko dena.

EBAZPENA, 2014ko irailaren 15ekoa, Hezkuntza Berriztatze zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Arte eta Goi-mailako Diseinu Eskolako ikasketen amaierako lana eta Diseinuko goi-mailako arte-ikasketen kanpo-praktikak arautzen dituen.

REAL DECRETO 596/2007, de 4 de mayo, por el que se establece la ordenación general de las enseñanzas profesionales de artes plásticas y diseño

72/2014 DEKRETUA, apirilaren 29koa, Komunikazio Grafikoaren eta Ikus-entzunezkoaren arlo artistiko profesionalaren barruan, Animazioko Arte Plastiko eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculumaz ezartzen duena.

69/2014 DEKRETUA, apirilaren 29koa, Komunikazio Grafikoaren eta Ikus-entzunezkoaren arlo artistiko profesionalaren barruan, Argazkigintzako Arte Plastiko eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculumaz ezartzen duena

71/2014 DEKRETUA, apirilaren 29koa, Komunikazio Grafikoaren eta Ikus-entzunezkoaren arlo artistiko profesionalaren barruan, Ilustrazioko Arte Plastiko eta Diseinuko goi-mailako teknikariaren tituluari dagokion curriculumaz ezartzen duena.

143/2016 DEKRETUA, urriaren 11koa, zeinarekin honako prozesu hau arautzen baita: Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan, Arte Plastikoetako eta Diseinuko arte-irakaskuntza profesionalak egiten dituzten ikasleen ebaluazioa, akreditazio akademikoa eta mugikortasuna gauzatzeko prozesua.

Ley 11/2022, de 1 de diciembre, de Empleo Público Vasco.

### **// Hezkuntza Eta Lanbide Heziketa Ministerioaren dokumentuak**

Ley de Enseñanzas Artísticas Superiores a debate. Documento base. Claves para el diálogo. Ministerio de Educación y Formación Profesional. Noviembre de 2022

### **// Eusko Legebiltzarreko dokumentuak**

Etorkizuneko Euskal Hezkuntza Sistemari buruzko hitzarmenaren oinarriak zehazteko ponentziaren txostena, 2022

### **// Hezkuntza Saileko bestelako dokumentuak**

Acuerdo sobre los criterios de asignación de plantilla en los centros educativos públicos de enseñanza no universitaria dependientes del Dpto. de Educación. Mesa Sectorial del Personal Funcionari Docente no universitario del Dpto. de Educación. 2022

### **// Ongizateari buruzko gidak eta txostenak hezkuntzan**

*Zuzendaritza-Proiektua egiteko laguntza-gida.* Hezkuntza Ikuskaritza eta Berritzeguneetako Lidergo Pedagogikoa eta Hezkuntza Eraldaketarako taldea. 1. bertsioa. 2022ko abendua.

Codi ètic de la Fundació Escola Superior de Música de Catalunya

(<https://www.esmuc.cat/wp-content/uploads/2022/05/CODI-ETIC-DE-LA-FUNDACIO-ESCOLA-SUPERIOR-DE-MUSICA-DE-CATALUNYA.pdf>)

Ikastetxei zuzendutako protokoloa, ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko. Ikuskaritza. Hezkuntza Saila.

Hezkuntza-arloko prebentzio eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoeretarako. Ikuskaritza. Hezkuntza Saila.

Ikasleen eskubideen eta betebeharren Dekretuaren gida. Ikuskaritza. Hezkuntza Saila.

Ikastetxearen elkarbizitza plana egiteko gida. Ikuskaritza. Hezkuntza Saila.

Eskola-jazarpen kasuetan ikastetxeetan jarduteko gida. Ikuskaritza. Hezkuntza Saila.

EAEko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan eskola-jazarpeneko egoeretan jarduteko PROTOKOLOA. Ikuskaritza. Hezkuntza Saila.

Ziberjazarpen kasuen aurrean ikastetxeetan jarduteko orientabideak. Ikuskaritza. Hezkuntza Saila.

Hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloa, gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoeretarako, eta hezkuntza-arloaren eta adingaberak babesteko esku hartzen duten agenteen arteko lankidetzeta eta koordinazioarako. Ikuskaritza. Hezkuntza Saila.

The UDL Guidelines (<https://udlguidelines.cast.org/>)

#### **// Bestelako dokumentazioa**

Goi-mailako arte irakaskuntzan egoera eta erronkak EAEn. Kulturaren Euskal Behatokia. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2019

KSIak Euskadin. Euskal kultura- eta sormen-sektorearen garapenean zehar ibilbidea. Kultura eta Hizkuntza Politika Saila, 2020

Hiri Hezitzailearen Gutuna. Hiri Hezitzaileen Nazioarteko Erakundea. [www.edcities.org](http://www.edcities.org)

ERAGIN programa ([www.ehu.eus/eu/web/sae-helaz/eragin-irakaskuntza-metodologia-aktiboak](http://www.ehu.eus/eu/web/sae-helaz/eragin-irakaskuntza-metodologia-aktiboak))

ETHAZI (<https://tknika.eus/eu/cont/proyectos/ethazi-2/#>)